

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Lehenik eta behin gauzarik garrantzitsuena gure enpresa edo proiektua funtzionatzeko autobus handi bat izatea izango litzateke . Bestalde, ostatua eroso izatea beharrezkoa izango litzateke , hau da , kapsulak erosoam eta zabalak izateak eta bertan egotea ez izatea astuna edo deserosoa.

Bizi-euskarriko sistemei begira , aire girotuko edo berokuntzako sistemak , aireztapen-sistemak eta uraren eta elektrizitatearen hornidura etengabea ditugu ere bai erosoago egoteko . Beste gauza oso garrantzitsu bat segurtasuna izango litzateke , hau da , suteen aurkako alarmak, ondo markatutako larrialdi-irteerak eta beharrezko beste edozein segurtasun-ekipamendu .



Denbora pasatzeko eta ez aspertzeko teknologia simple batzuk eskaintzen ditugu , Wi-Fi, korrante-hartuneak edo entretenitzeko gauzak instalatzea (pantailak , soinu-sistemak) . Gauza guzti hauek eskaintzeko eta jendearen nahiak asetzeko langile gaituak gara , hau da , Ostalaritzako langile adituak ditugu taldean zerbitzu

bikaina emateko , hau da , gure langile guztiek dute esperientzia langile bezala , gurearen antzeko leketan lan egin baitute, hau da, hoteletan, tabernetan , autobus gidari bezala ...

Eta funtsezko baliabideekin bukatzeko , dena behar bezala edukitzeko, bai araudiak bai lizentziak, hotel mugikor batean jarduteko legezko arau eta baldintza guztiak beteko ditugu, baita gidalizentzia bereziak ere autobusa gidatzekotan .



Eta azkenik amaitzeko, nabarmendu dezakegu gure proiektua edo enpresa bakarra dela, ez dagoelako gurea bezalakorik , beraz , behar izango dugu jende espezializatu konkretua hala nola autobuserako turismo-gune bat , hiri desberdinetatik igarotzen

garelako, eta horietako bakoitzaren laburpen labur bat egiten dugu .